

GURE ONDARIA ZAINDDU GURAN

Baztarrak oso zabalak zittualako, kamiñuak eta bidiak be ugari eta luziak eukan Oñatik. Legazpi, Antzuola, Bergara, Mondrague, Leintz eta Araba aldera allegaitteko edota herri barruko auzuen arteko fan-etorriak egittek, ganorazko bidesistema modutu ebein denbora bateko oñatiarrak urtien eta lanaren puruz. Bidiok era askotakuak izaten ziran: batzuk zaldiz tiratutako karruak pasaitteko modukuak (**kamiñuak** eta **erregebidiak**); idi eta behiak karriaitten zittuain burdixentzakuak beste batzuk (**burdibidiak**); mando, zaldi eta astuak ibiltteko hurrengiak (**mandabidiak**); eta oiñezkuentzako bakarrik ziranak be bai, jakiña: burdibidien gaintxotik edo beste lekutatik zixoiazzen **oinbide** eta **sendak**.

Bide guztien barri emutia zaila eta luziegixa litzakelako, inportantienak bakarrik aittatuko dittugu: a) **Bitto-rixatik Frantziarako erregebidia** sasoi baten gure lurretatik pasaitten zan: Gatzaga, Leintz, Mondrague, Bakue, Matromai, Zubillaga, Torreauzo, Oñati (kalia), Olabarrieta eta Iñuntziagako gaiñetik Legazpira; b) **Oñatititik Arabarako kaltzadia**: Uribarri, Urtiagain, Arrikruz (bentia), San Juan Artixa (bentia), Katillu-itturri (mendatia) eta Arabako San Millan eta Barrundia (Aspuru, Larrea, etab.); c) **Oñatititik Leintzarako kaltzadia**: Garagaltza (San Juan), Lamiategi, Urruxola, Urruxola-garai (mendatia), Korueta eta Aretxabaleta (kalia); d) **Oñatititik Antzuolarako kaltzadia**: Zumeltzegi (Goiko torria),



Larrañako burdibidia.

Antxiñako bide-saria Oñatin Kaltzadak, burdibidiak, mandabidiak, etab.

Olabarri; Koroso (mendatia) eta Antzuola; e) **Arantzazurako erromesen kaltzadia**: Arrikruzeraño Arabako bidetik eta hortik aurrera Gesaltzaruntz (bentia) hartu eta Akuegiko errotatik zihar Kurtzipiziora (kolejixo barrixaren atzian dagueen santutxua) eta Arantzazuko eliza eta komentura. Erromes leiztarrak, berriz, Urruxola-garai, Urruxola eta Jaturabetik zihar heltzen ziran Arrikruzera eta hortik gora Oñatitik etorren kaltzadatik jarraitetan ebein Arantzazuraño; f) **Biozkornako kaltzadia**: Arriurdin eta Artzanburu tontorren artian ixa 1200 metrotako altueran dagueen mendate ezagun horretatik be kaltzada famau bat pasaitten zan Murgixa, Olabarrieta, Udana, Brinkola nahiz Zegama aldetik Arantzazu, Urbixa edo Arabara jo ahal izate-

ko.

Ikusten dozuenez, bista-kuenak bakarrik aittatuta be, ondo inportantia zan Oñatiko bide-sare tradizionala. Baiña azkenengo urte honeittan aldaketa oso sakonak izan dittu. *Oñatiko Historia eta Arte Bilduma* izeneko liburuan (1982) agerketan diran kaltzadazati, burdibide eta bestelako bide zahar asko azkenengo 10-12 urtietan hondatu, desegin edo, kasurik onenian, porlandu egin dira. Badakitt baserrittarako bidiak erosotu egin bihar dirala eta mundu guztiak dakola etxeraño kotxian allegaitteko eskubidia; hala eta guztiz be, sarrittan bide asko premiña haundi barik zementoz tapau dirala uste dot. Baiña okerrena da eztogula ixa ezer egiten geldiketan diran antxiñako bidien arrasto apur horreik zainddu, barriztau,

txukundu eta jenereraziño gaztiaguairi erakusteko. Bidiak konpondu bihar diranian, ezta betik derrigorrezkoa kaltzada edo kamiño tradizionala apurketia eta zaharraren gaiñian barrixa egittia. Danon borondate eta ardura pittin batekin eta erakundien laguntasunarekin, askotan goratxuagotik edo beheratxuagotik be urratu leike bide barrixa, harrizko zaharraguak erresetauaz eta, ahal baldin bada, txukunduaz.

Galdu bihar eliraken gauza asko hondatu dogu. Oraintxe be, **Biozkornako** aldeko sondeuak buruketako, Eskistatik gora kamioiak eta traste astunak dabitz lehen aittatu dogun kaltzadatik. Dana dala, betik zezer egin leikiela eta sekula ezjala berandu pentsauaz, heldu deixogun geraketan xakun apurrorri eta konpondu dagineun zihero alperrik galdu baiño lehenago: adibidez, Kanposanturako bidetik **San Juanerako** kaltzadazatixa; **San Juan Artixatik Araba** bittarteko kaltzadapusketia; **Olabarrieta, Larraña, Arantzazu, Aratetz, Madalena** eta beste edozein auzotan (edo kalian bertan) han eta hemen sakabanatuta dagozen burdibide, elizbide, zubi zahar, bide ertzetako horma eta beste hainbat elementu interesgarri barriztauaz eta zaindduaz.

JERARDO ELORTZA

*Oharra: Fan dan hilleko aldizkarixan Lezesarriko **posaerak** Murgixa barruan sartuta agertu ziran eta Murgixakuak, barriz, ezki-ttuan ipiñi. Zuzenketia egin ondoren, hala geldiketan da: Murgixakuak **Jargikua** eta **Murgialdai**; eta Lezesarrikuak **Gastiasoro, Goixenetxe, Lezesarri, San Esteban** eta **Tan-telu**.*